

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

BERRIAK

HERRI MUSIKAREN TXOKOAREN BULETINA

2008ko azaroa

28. zenbakia

AMERIKAN IZAN GINENEKOA

Herri Musikaren Txokoaren ordezkari bat Hego Amerikan ibili da pasa den irailean euskal kulturaren zati bat han ezagutzera ematen eta aldi berean hangoa ezagutzen

Lehengo irailean Uruguai eta Argentina aldean ibili zen Herri Musikaren Txokoaren ordezkari bat. Hara egindako bidaiak hainbat helburu zeuzkan eta horien artean euskal herri musikan erabiltzen diren soinu-tresnak ezagutzera ematea eta bertakoak ezagutzea zeuden.

Uruguain, Montevideoko Haize Hegoa euskal etxean, txalaparta nola egiten den ikasteko aukera izan zuten hara gerturatu zirenek, baita jotzeko erari buruzko aholku batzuk entzutekoa ere. Gure aldetik, Afrikako gatibuek bere garaian Uruguaira eraman zuten *Candombe* tanborra gehixeago ezagutu genuen.

Gaur egun Uruguaiako herri musikan leku nabarmena duen musika mota hau nola jotzen zuten ikusi genuen eta une hura filmatzeko aprobetxatu genuen gure dokumentazio zentroan



Euskal soinu-tresnen aurkezpena Chivilcoy-ko kontserbatorioan. HMT *candombe*ari buruzko informazioa gehituz.

Montevideotik Argentinara. Han hiru hiri bisitatu genituen.

Lehenengo Chivilcoy hirian izan ginen. Bertako jardunaldiak Beti Aurrera euskal etxeak antolatutako ziren. Hiriko kontserbatorioan Euskal Herriko herri soinu-tresnen inguruko hitzaldia eman

genuen beraien erabilpenaren inguruko azalpenak eta beraien hotsaren adibideak emanek.

Hurrengo hiria Arrecifes izan zen. Hango emanaldian bertako Grupo Maral taldearekin partekatu genuen oholta eta orduan sortutako harremanaren ondorioa da talde honek Oiartzunen emango duen kontzertua.



Candombé saio bat Montevideoko Haize Hegoan. HMT

Bidaiko azken geltokia Buenos Aires izan zen. Bertan euskal herri soinu-tresnen erabilpena eta nondik norakoak azaltzeko kontzertu didaktiko bat eman genuen. Horretaz gain, astero ematen duten alboka ikastaro batean parte hartzea eskatu ziguten: asteko klasea ematea nahi izan zuten. Aukera hori, gurean alboka jotzen erakusteko jarraitzen den metodologia azaldu genuen beraien lan egiteko era osatzeko balioko dienaren esperantzarekin.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Neguko kontzertua

2008ko abenduaren 6an - 18,30tan - Oiartzungo udaletxean

Zarauz'ko MANTXI ETA ETXABE

Bertso zaharren antologia



Iñigo Mantzisor *MANTXI* eta Xabier Etxabe zarauztarrek bertso zaharren antologia bat kantatuko dute. Bertsozaletasunak elkartu ditu biak, batez ere Zarauzko *MOTXIAN* bertso-eskolan aritzen direlako, bertsoen inguruko ekitaldiak antolatzen eta haietan parte hartzen: koadrilen arteko bertso-desafioak, santaeskea Zarautz inguruko baserrietan barna, Bertso Eguna, eta Bertso Musikatuen saioa besteak beste. Hain justu urtero uztailean egiten duten bertso musikatuen emanaldian probatu dute Oiartzunen emango duten formatua. Emanaldi horretan, Xabier Etxabe gitarrarekin eta Mantxi aho-soinuarekin aritzen dira kantuak musikatzen. Estilo horretan kantatuko dute Oiartzunen ere: bertso batzuk bi ahotsetara (*a capella* beraz), eta beste batzuk gitarrarekin eta aho-soinuarekin lagunduta. Izan ere, Mantxik eta Etxabek hitzari eman nahi izan diote garrantzia, eta horregatik ez dute nahi izan musika-tresnekin bertsoa gehiegi betetzerik.

Proiektu honen hazia 2007ko martxoan erein zuten Zarautzen Anartz Arrietak eta Xabier Etxabek: *KAFE TORERO* kultur programazioan aurkeztu zuten *BERTSO ZAHARREN ANTOLOGIA*. Orduko hartan, aho-soinuaren partez biolinarekin laguntzen zituen kantuak Anartz Arrieta erreteriarak. Saio haren espirituari segitu diote Mantxik eta Etxabek: bertso zaharrak aukeratzeak badu bere zergatia, batetik kulturaren transmisioak biei sortzen dien kezkatik, eta bestetik jendearentzat ezagunak diren bertsoak kantatu nahi dituztelako.

Udako kontzertua HM Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Ibargain elkartean musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.
Prezioa: 15 euro.

Argentina'ko GRUPO MARAL

Mariana Dominé Irigoyen (voz principal), Adrián Charras (teclados, acordeón y coros),
Christian Rodríguez (batería, bombo leguero, cajón y percusión),
Billy Vogt (guitarra, bajo y coros), Mariu Cozza (coros)

GRUPO MARAL Argentinako Arrecifes hirian 2000 urtean sortu zen lurraren taupadak bere musika aukera zabalean barrena bidaiatuz adierazteko asmoz.

Hala, Maral-ek herri musikaren estilo ezberdinak, zambak, txakararak, tangoak eta milongak, lantzen ditu oholztatik bidean topatzen dituen inguru hiritarra eta nekazaria batzera deitzen duen marka indartsua jarriaz.

Taldeak egitura egonkorra mantendu du azken zortzi urteetan eta bira arrakastatsuak egin ditu Argentinan eta inguruko herrialdeetan. Ibilbide

disko dituzte argitaratuta.

Taldeko batzuk jatorri euskalduna dute. Hori dela eta, kultura euskalduna eta argentinarra bilduko zituen proiektu bat sortzea bururatu zitzaion taldeari. Orduetik hona, proiektu horrekin Argentinako hainbat Euskal Etxetara joan dira bertakoen emozioak azaleraziz.

Oraingo hau Grupo Maral-ek Euskal Herrira egiten duen lehen bidaia da. Aukera hau Eusko Jaurlaritzaren Kultura Idazkaritzak *EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN* parte hartzeko egindako gonbidapen batetik sortu da.



horretan herri mailako eta nazioarteko mailako musikariekin partekatu dute oholza tartean Juan Mari Beltran eta Kepa Junkera topa daitezkeelarik.

Era ezberdinetako musikak biltzen dituzten lau

KONTZERTUKO EGITARAUA

Zamba del grillo (<i>Zamba</i>)	Atahualpa Yupanqui
La vieja (<i>Chacarera</i>)	Hermanos Díaz
El bailarín de los montes (<i>Gato</i>)	Peteco Carabajal
El Seclanteño (<i>Baguala</i>)	Ariel Petrochelli
Merceditas (<i>Chamame</i>)	Ríos
Los ejes de mi carreta (<i>Milonga</i>)	Atahualpa Yupanqui
Si llega a ser Tucumana (<i>Zamba</i>)	Leguizamón y Pérez
Chacarera de las piedras (<i>Chacarera</i>)	Atahualpa Yupanqui
Cambalache (<i>Tango</i>)	Santos Discépolo
Como dos extraños (<i>Tango</i>)	Contursi-Laurentz
Desencuentro (<i>Tango</i>)	Cátulo Castillo-Aníbal Troilo
Nada (<i>Tango</i>)	Sanguinetti-Dames
Baldoza floja (<i>Milonga</i>)	Gilardoni-Sasoni
El choclo (<i>Tango/milonga</i>)	Discépolo - Villoldo
La cumparcita (<i>Tango</i>)	Matos Rodríguez

**kontzertu honen
laguntzaileak:**

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA


TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

esku-soinuak
9 zero sette
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

AZAROAN KANPAIAK

Aurreko buletinean berri ematen genuen bezala, aurtengo Herri Musikaren Jardunaldiek kanpaiei buruzko alderdi ezberdinak aztertuko dituzte. Hala, bertaratzen direnek ezkilak jotzen nola ikas daiteken ikusteko aukera izango dute. Baina ez hori bakarrik, jotzen denaren esanahia eta helburua zein den jakiteko parada ere izango baita. Eta nola ez, kanpai joaldiak ere ez dira faltako eskualde ezberdinetako hotsak Oiartzungo kanpandorretik eta plazan jarritako kanpaietatik joko direlarik, azken hauek Gijanoko (Cantabria) Hermanos Portillak utzitakoak. Dena den, horiek ez dira egitarau zabalago baten adibide batzuk besterik.

Jardunaldi hauen antolaketan Herri Musikaren Txokoa Amurrioko Kanpaijole Ekartearekin, Arientzako Kanpaijole Eskolarekin eta Valentziako Campaners de la Catedral de València-rekin elkarlanean aritu da.



San Esteban elizako kanpandorrea. HMT

HERRI MUSIKA ESKOLA ASTURIASEN

Xixongo "La Quintana" musika eskolatik egin ziguten bisitari erantzunez Asturias aldera doa Oiartzungo Herri Musika Eskolako eta Hernaniko Musika Eskolako Dultzaina Taldeko irakasle eta ikaslez osatutako taldea abenduaren 13 eta 14-ean.

Bertan larunbata arratsaldean "Museo Internacional de la Gaita" bisitatuko dute, ondoren Xixongo eskolarekin batera kontzertu bat emateko.

Igande goizean zehar Xixongo alde zaharrea kalejiran ibiliko dira. Eguardian bertako sagardotegi batean bazkalduko dute, ondoren ez da faltako dantza eta musika festa giroan, handik bueltan abiatu arte.

7. HM JARDUNALDIK EGITARAUA

2008-11-29, larunbata

10:00'etan, Auzokalte Elkartean Mintegia

Patxo Fernandez de Jauregui

-*Lo que dicen las campanas*

Francesc Llop i Bayo

-*Inventarios y restauración de las campanas de las catedrales*

Francesc Llop i Álvaro

-*Algunos aspectos musicales de las campanas y sus toques*

Anton Mari Aldekoa

-*Iurretako kanpaiak*

15:30'etan, Auzokalte Elkartean Mahaingurua

Ikuspuntu ezberdinetatik kanpaiaren inguruko gogoeta egiteko gonbidapena

19:00'tan, Doneztebe enparantzan Kanpai eta ezkilak hotsak

2008-11-30, igandea

10:00'etan, Manuel Lekuona Liburutegian Tailerrak

Arientzako Kanpaijole Eskola

-*Kanpai jotzea, kolpez kolpe*

Kanpaiak jotzen ikasteko materiala

Francesc Llop i Álvaro

-*Kanpaien azterketa akustikoa*

12:30'etan, Doneztebe enparantzan Kanpai eta ezkilak hotsak



Xixongo "La quintana" Herri Musika Eskola 2008ko apirilaren 5ean Herri Musikaren Txokoa entseiatzen, Doneztebe plazan kontzertua eman aurretik. HMT

BISITARI KOPURUA

Urtia: bisitari kopurua: 391

Antolatutako taldeak: 15

Bisitari kopurua azarora arte: 19.713

HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

